

BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

Euskara Plana SAIOAK

1. SAIOA

Lehen saioan, besteak beste, azalpen historiko laburra egin zen, euskararen ezagutzak eta erabilerak azken 50 urteetan izan duten bilakaeraz.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plangintzaldiaren baitan, metodologia berriari buruzko azalpenak eman zitzaizkien langileei. Gainera, 2023 urtean egindako BIKAIN simulazioaren emaitzak azaleratu ziren, denok ikus dezagun gure errealitatea nahiko positiboa dela.

Amaieran, 2028 urterako erdietsi beharko genituzkeen helburuez gogoeta abiatu genuen, ardatz hartuta Kudeaketa eta Erabilera.



2. SAIOA

Bigarren saioan, langileak taldeka jarri eta aurrekoan planteatu ziren helburuak betetzeko, ekintza aproposak zehaztu eta bakoitzari arduradun bat esleitzeko eskatu zitzaien.

Denak gogotsu aritu ziren, eta saio emankorrean hainbat ideia plazaratu ziren.

Erakundeko langile gehienek hartu zuten parte saio hauetan, dela aurrez aurre, dela telematikoki. Gure presidentek eta idazkari nagusiak ere gainerakoan moduan jardun dute.



ARGAZKI LEHIAKETA



Udan, **Lan Harremanen Kontseiluko III. Argazki Lehiaketa** antolatu da, eta guztira 38 argazki aurkeztu dira edizio honetan. Aurrekoan bezala, oraingoan ere bi irabazle izan dira!

Asier eta Josu!

Laugarren ekitaldirako gero eta gutxiago falta da!



zerionak!



Nieves Martinez Gayoso

ZUTABEA

Uda honetan lan-harremanetan espezializatutako aldikari batentzat idaztea proposatu didate, lan-bitartekaritzaren objektua zein den azaltzeko, eta zein izan daitekeen etorkizunari begira. Uste dut garai ona dela horri buruz egindako hausnarketa zuekin konpartitzeko. Bada, gainera, uda honetan egon den beste berri bat horretaz aritzeko une aproposa dela azalarazten duena: 2024ko uztailaren 19an Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak, alde batetik, eta ordezkagarritasun nagusiko enpresarien elkarteek eta sindikatuek, bestetik, Hitzarmena sinatu dute lan-arloan judizio-barneko bitartekaritzari buruz. Hitzarmen honetan alde guztiak bitartekaritza sustatzearen alde agertzen dira, eta enpresarien elkarteak eta sindikatuak lan-arloko bitartekarien talde kualifikatuak lan-arloko jurisdikzio-organoen eskura jartzeko prest agertzen dira. Baina sinatzaileek ez dute hori martxan jartzeko inolako konpromiso ekonomikorik hartzen; hortaz, oraingoz hartutako akordioak izaera sinbolikoa duela esandaiteke. Badirudi banakako lan-gatazkari heltzeko unea iristear dela.

ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA

“Bide batez, ez dezagun utzi etorri berrien bizkar gainean bakarrik euskararen biziberritzearen erantzukizun osoa, kudeaketa eta harrera egokiak egin beharko bailirateke hizkuntzaren aldagaia ageri den egoera guzti-guztietan, administrazioetatik hasi eta mota guztietako enpresa eta erakundeetatik jarraituz, hizkuntzen kudeaketari ematen zaion garrantziaren adierazgarri.”

ARTIKULUA OSORIK

